

Hiru ermuar Kilimanjaron

Javier Garitagoitia Ostoloza, "Katxan", Jesus Garaikoetxea Altube "El viejo" eta Ricardo Gonzalez Izarra "Riki" dira istorio honen protagonistak.

Gaztetan medirako zaletasun nabarmena zuten garai hartako beste askok bezala. Igande goiz bat Oiz mendi tontonrean izan zen euren erabakiaren lekuko, han pentsatu baitzuten Kilimanjarora (6.010 metro) espedizio bat egitea. Hiru hauek duela 25 urte pentsatu eta egin ere egin zuten. Afrikako mapa lortu, ongi aztertu eta dirua aurrezteari ekin zioten 1975eko udaberrian. Jai egun guztietan 1000 pezeta jartzeaz gain, igandero eta fisikoki prestatzeko, Euskal Herriko mendi gehienak igo zituzten.

Dirua aurreztu ahala, mendirako arropa eta materiala erosten hasi ziren ekipamendu guztia lortu arte.

Bilboko "Sireica" agentziarekin beharrezko tramimetak burutu ostean, 1976ko uztailaren 26an Bilbotik irten eta abenturara abiatu ziren. Madrilen eta Roman eskala egin ondoren Nairobiara heldu ziren. Hiruretatik batek bakarrik, Rikik alegia, zekien ingelesa eta hizkuntza ez zen izan oztopo abentura honetan. Nairobini kotxea alokatu eta Kenyako hegoalde guztia zeharkatu zuten. Ibilbidean zehar, bertoko jendea ezagutzeko aukera izan zuten eta euren artean ere izan zen eztabaida bat baino gehiago. Kenyatik Tanzaniarako muga zeharkatzeko oztopoak aurkitu bazituzten ere, azkenean heldu ziren.

IGOERA

Han bi gida eta lau porteadoreekin batera Kilimanjaro igozten hasi ziren. Igoerak hiru egun iraun zuen eta azken me-



troetan nekea handia zen arren, hiru ermuar hauek euren helburua lortu zuten eta Kilimanjaro mendiaren tontorrean ikurriña jarri zuten 1976ko abuztuaren 3an. Handik jaisteko egun t'erdi eman zuten eta helburu nagusia beteta zegoenez, bigarren pausua burutu zuten, gainontzeko egunetan munduko alde hau ezagutzen ibili ziren.

OSPAKIZUNA

Esperientzia zoragarri hau bizi zuten hiru lagunek afari berezi bat egingo dute ospatzeko. Duela 25 urte bezala, afari-rako dirua aurrezten joan dira eta sukaldari batekin ere hitz egin dute aparteko urtemuga hau ospatzeko. Zorionak eta begon deizuela!

Alazne Aiestaran



AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)
☎ 630 15 11 52 (ANGEL)





- LENGOAIA MUSIKALA

- PIANO

- AKORDEOIA

- FLAUTA

- KLARINETEA


- SAXOFOIA

- TRONPETA

- TRIKITIXA

- KOROA

- TXISTUA



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 71

Bar GREDOS

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*